

Aurizko udaletxean, 2007ko ekainaren 16an, 11:30ean, azkeneko hauteskundeetan hautatuak izan ziren zinegotziak elkartu ziren, Udalbatza osatzeko eta alkatea hautatzeko. Hori guztia Toki Erregimeneko 5/1985 Lege Organikoak, ekainaren 19koa, eta Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Arautegiak dioena betetzeko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jose Irigaray Gil j., M^a Roncesvalles Azanza Burusco a., Alejandro Othegi Echeverria j., M^a Aranzazu Oyarbide Lapazaran a., Ignacio Irigaray Gil j., Juan Manuel Azanza Burusco j. eta Iker Oroz Garate j. Idazkari lanetan Pedro M. Cenoz Iragui j. aritu zen.

Aldez aurretik, Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Arautegiaren 7. artikulua dioena betetzeko, hautatuak izan diren zinegotziek beren kredentzialak eta diru-sarrerak eman ahal dizkieten jardueren balizko bateraezintasun arrazoen gaineko aitorpenak aurkeztu dituzte idazkaritza orokorrean, hala nola Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.5 artikulua dioenaren gaineko aitorpena.

UDALAREN ERAKETA

Udala eratzeko Adin Mahaia osatu da, eta, haren buru Alejandro Othegi Echeverria j., izango da, zinegotzien artean adinez nagusia izateagatik, eta beste mahaikidea Iker Oroz Garate j. izango da, zinegotzien artean adinez txikiena izateagatik; idazkari lanetan udalbatzaren idazkaria arituko da..

Ondoren, Adin Mahaiak kredentzialak egiaztatu ditu eta ongi daudela ikusi da.

Udala 7 zinegotziz osatuta dagoela kontuan harturik eta hautatuak izan diren 7 zinegotziz bertan daudela ikusita, Huteskundeetako Erregimen Orokorren Lege Organikoaren 195.4 artikulua eta Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Arautegiaren 37.4 artikulua diotena betetzen da, hots, Udalbatza eratzeko hautatutako zinegotzien gehiengo absolutua bertaratzea derrigorrezkoa dela.

Ondoren, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 108.6 artikulua dioena betetzeko, Adin Mahaiburuak zinegotziak deitu ditu zin egin edo hitzeman dezaten. 707/1979 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, dioenaren arabera Mahaiburuak honako galdera egin die zinegotziei: “ Zin egin edo hitz ematen duzu zinegotzi karguaren betebeharrak zintzoki beteko dituzula, Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa gorde eta gordearaziko duzula, Estatuko arau nagusi gisa?”.

Horrela hitzeman dute galdetutako guztiek eta beren karguetaz jabetu dira.

Egin beharreko guztiak bukatuta, Adin Mahaiak Aurizko Udalbatza eratutzat eman du.

ALKATEAREN HAUTAKETA - JABETZA-HARTZEA

Ondoren eta lehen aipatutako Lege Organikoaren 196. artikulua dioena betetzeko, alkatearen hautaketari ekin zaio. Mahaiburuak zerrenda bakoitzeko buruen izenak irakurri ditu, horiek direlako alkate-hautagaiak. Hona hemen:

Jose Irigaray Gil j.

Mahaiburuak dio alkatea hautatu behar dela eta horretarako bozketa bakarra egin behar dela. Bozketan 7 zinegotziek parte hartuko dute.

Bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira:

Jose Irigaray Gil j..7 boto

Boto-kontaketa egin ondoren eta protestarik izan ez denez, aditzera eman da Udalaren alkate Jose Irigaray Gil j. izendatua izan dela.

Ondoren, Jose Irigaray Gil jk. izendapena onartu du eta bere alkate-karguaz jabetu da, aldez aurretik zin eginez, eta bilkuraburu postuaz jabetu da.

Jarraian alkate jk. hitza hartu du eta hau erran du:

Lehenengo eta behin gure aurretik egon den udalbatzari egin duen lana eskertu nahi diot. Batzuetan ongi egindako lana, beste batzuetan ez hain ongi, bitzta publikoan guztioi gertatzen zaigun bezala, baina uste dut eskerrak emateko unea dela. Laister bilera batera deituko ditugu, egiteke dauden proiektuetaz mintzatzeko.

Marino Ayerra Redín jk. idatzi zuen liburuan, “*No me avergoncé del Evangelio*”, izenburua zeukana, zioen 1936ko uztailen Altsasun egin zuen aurkezpenean esan zuela jarraitu behar zuen ibilbidea hiru zutabeetan oinarritzen zela. Hiru zutabe horiek neure egiten ditut eta esaldi honetan laburbiltzen dira:

“*Garbi jokatu, barnetik sentitu eta argi mintzatu.*”

- Garbi jokatu, hau da, bizilagunei ezerez ezkutatu gabe, eta herriaren interesak defendatuz norbanakoen interesen gaintik.

- Barnetik sentitu, bizilagunen arazoak, larriak zein arinak, neure eginez.
- Argi mintzatu, egiari eutsiz, gezurretan aritu gabe.

Aranandi Talde Independienteak erronka bat du, hots, datozen lau urteetan gauzatuko diren proiektuetan eta hartuko diren erabakietan herritarren parte-hartzea sustatu eta lortzea; horretarako, informazioa emango da. Horren ondorioz, herriko ondasunen kudeaketa aberastuko da, eta, jendea informatua egongo denez, oinarririk gabeko iruzkinak saihestuko ditugu.

Maiatzaren 27ko hauteskundeetan, 159 bizilagunek gure alde bozkatu zuten, 30ek botu zuria eman zuten, 19 botu baliogabekoak izan ziren eta gainontzekoek ez zuten bozkatu. Gure aldeko botua eman zutenei eskertzen diegu, eta guztiei mezu bat igorri nahi diegu, Iruñeko udaletxeko atari bateko harrizko arkuko dobelan idatzita dagoen mezua hain zuzen ere; horretan latinez idatzita dagoen itzulpena da honako hau: *“Ataria irekita dago denondako, baina bihotza aunitz ere gehiago”*. Oso hitz egokiak guztiona eta guztiontzakoa den etxe honetan paratzeko, eta udalkide guztiok praktikan jartzen saiatuko gara.

Auriztarrak: badakizue, ataria irekita dago denondako, baina bihotza aunitz ere gehiago.

ZENBAKETA ETA INBENTARIOAREN AURKEZPENA

a) Arkeoa

Kontuhartzaileak fondoaren kontaktaren gaineko informazioa eman du, 2007ko ekainaren 14ko dataz; kontaketa hori aurreko alkateak, diruzainak eta kontuhartzaileak sinatu dute eta, horren arabera, dagoen dirua 28.263,06 euro da; Udalak badu 229.748,44 euroko kreditua eta horietatik 226.012,05 euro erabili ditu.

Halaber, jakinarazi du Aurizko Udal Hirigintza Elkarte S.L.U.-k badituela 126.817,30 euro, haren presidentek, orain arte Aurizko alkate izan denak, Iñaki Cilveti Lecumberri jk., 2007ko ekainaren 15ean udaleko erregistroan aurkeztu zuen dokumentuaren arabera.

b) Inbentarioa

Modu berean, idazkariak Udalaren inbentarioaren gaineko informazioa eman du, 2007ko ekainaren 15eko dataz; hori ere aurreko alkateak, diruzainak eta kontuhartzaileak sinatu dute, eta dagoena 5.978.576,89 euro dira.

Jakinarazi du baita Aurizko Udal Hirigintza Elkarte S.L.U.-k badituela “lau lursail Kanaleburuako urbanizazioan eta horiek kapital-zabalkuntzari dagokion eskrituran agertzen direla, 2006ko irailaren 7an

Agoizko Notaritzan sinatu zen hartan, eta ez direla saldu. Hortaz gain, elkartearen osatu zeneko kapital soziala aipatzen da eskritura horietan.” Dokumentu hori Elkarteko presidentek, Iñaki Cilveti Lecumberri jk., sinatu zuen eta 2007ko ekainaren 15ean aurkeztu zuen udaleko erregistroan.

Eta horrenbestez, 12:30ean bilera amaitu da eta akta hau egin dut, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertu eta erabaki direnak idatziz jasota gera daitezela.